

ETORKINAK ETA EUSKARA

Herritar berrien integrazioa, euskararen gaineko eragina eta eskaintzen zaizkien baliabideen analisisa

Miren Amesti Gallastegi
TUTOREA: Josu Perales

AURKIBIDEA:

1. Sarrera
2. Ikerketa lanaren zergatia eta metodologia.
3. Zer dira migrazio mugimenduak? datu orokorrak
 - 3.1. Migrazio mugimenduen ondorioak
4. Euskal Herria: migrazio mugimenduen herria
 - 4.1. XIX. mendean Euskal Herrian gertatutako migrazio mugimenduak
 - 4.2. XX. mendean Euskal Herrian gertatutako migrazio mugimenduak eta euskararengan izandako eragina.
 - 4.3. Egungo egoera eta integrazioa
5. Etorkinak eta euskara: zergatik da garrantzitsua etorkinek euskara ikas dezaten?
 - 5.1. Etorkinek euskara ikasteko dituzten aukerak
 - 5.2. Euskara ikasten duten etorkinen tipologia
6. Aisa harrera ikastaroak
 - 6.1. Aisa harrera ikastaroetako material didaktikoaren ebaluazioa
 - 6.2. Inkesten emaitzak eta ondorioak
 - 6.3. Norberaren esperientzian oinarritutako ondorioak
7. Material didaktikoa hobetzeko proposamenak
8. Bibliografia
9. Aipuak

1. SARRERA:

Betidanik izan da Euskal Herria migrazio mugimenduen herrialdea, 2000 urtetik egun arte, etorkinen etorrerak hazkunde handia izan du eta, ondorioz, gure herriek geroz eta kultur aniztasun zabalagoa dute. Aniztasun horrek integrazio eta bizikidetzaren egokia lortuz gero, kultur aberastasun ikaragarria ekarriko digu herri gisa. Bestalde, integrazioa osoa izan dadin, euskal kultura ezagutu eta hizkuntzan murgiltzea ezinbestekoa da bai etorkinentzat baita bertako euskaldunontzat ere.

Hizkuntzaren aldeko motibazioa sortzeko, alde batetik, etorkinek oinarrizko beharrak asebeteta izatea behar beharrezkoa da eta, bestetik, euskara ikasteko baliabide egokiak eskaini behar zaizkie.

Haberen Aisa harrera ikastaroak etorkinei zuzendutako ikastaroak dira, hizkuntza berriarekin lehen kontaktua izan dezaten sortutako ikastaroak. Baina, nolakoak dira ikastaroak? Zein material didaktiko erabiltzen da? Egokia al da material hori?

Hitz gakoak: immigrazioa- euskara- integrazioa- Aisa harrera ikastaroa-material didaktikoa

*"Nekez uzten du bere sorterrira
sustraiak han dituenak.
Nekez uzten du bere lurra zuhaitzak
ez bada abaildu eta oholetan.
Ez du niniak begia uzten
ez bada erroi edo arrubioen mokoetan.
Nekez uzten du gezalak itsasoa
ez hare harriak basamortua.
Ez du liliak udaberria uzten
ez elurrak zuritasuna.
Bere sorterrira nekez uzten du
sustraiak han dituenak."*

(Joseba Sarrionandia)

2. IKERKETA LANAREN ZERGATIA ETA METODOLOGIA

Euskara irakaslea naiz eta 6 urte daramatzat eskolak ematen hainbat euskaltegitan, Ika Gasteiz, Zornotzako barnetegia eta Durangaldeko Aekn, hain zuzen ere. Maila eta ikastaro mota ezberdinetan irakatsi dut euskara eta aurren, bigarren aldiz izan naiz Aisa harrera ikastaro baten irakasle. Gure artean gero eta etorri berri gehiago dago eta beraiek euskal mundua eta hizkuntza bera ezagutzea beharrezkoa da gure helburua benetako integrazioa bada bederen. Baina hizkuntza berria irakasterako orduan, Aisa ikastaroetan, kontutan izan al dugu nolakoak diren gure ikasleak?

Alfabetatuak diren, zenbat hizkuntzatan komunikatzeko gai diren, zein aukera eta behar dituzten... horren arabera sortu al da ikastaroetara bideratutako material didaktikoa? Euskaltegietan edozein irakasle al dago gaituta inolako prestakuntza ikastaro gehigarriekin egin gabe Aisa ikastaroak aurrera eramateko? Zalantza eta galdera horiek guztiak sortu zaizkit niri eskolak ematen ari nintzen bitartean, horietan dira, beraz, lan hau egitearen arrazoiak.

Ikerketa lana egiteko metodologiari dagokionez, lanak bi atal dauzka; lehenengo zatia gaia bere testuinguruan kokatzeko egindakoa da. Horretarako, aurretik gaiaren gainean egindako ikerketarik badagoen kontsultatu dut eta landuko dudan gaitik hurbil dagoen lan bakarra egin denez, horixe hartu dut oinarri, Baxok eta Coyosek egindako *Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian* ikerketa lana. Gainera, bibliografian aipatzen diren hainbat artikulu, liburu eta webgune kontsultatu ditut datuak eta iritziak jasotzeko.

Bigarren zatia praktikoa da ikasle eta irakasleek betetako inkesten emaitzak aurkezten dituen. Aisa harrera ikastaroetako material didaktikoa ebaluatzeko inkesta sortu nuen eta EAEko hainbat euskaltegitako (udal euskaltegi zein euskaltegi homologatuak) ikasle eta irakasleek erantzun dute.

Gai honek askoz lan sakonagoa egiteko lan ematen du eta nire asmoa aurrera begira gehiago sakontzea bada ere, nonbaitetik hasi behar denez, honatx emandako lehenengo pausuak. Hasi aurretik, eskerrak eman nahi dizkiet inkesta erantzun duten euskaltegietako irakasleei baita ikasleei inkesta erantzun eta egunero eskoletara joan eta euskara ikasiz gure hizkuntza txikia indartsuago

egiten dutelako.

3. ZER DIRA MIGRAZIO MUGIMENDUAK? DATU OROKORRAK:

Pertsona bat jaio eta bizi den lurraldea utzi eta beste herrialde batera denbora luzerako joatea da migratzea eta joan etorri horiei esaten diegu migrazio mugimenduak. Bi migrazio mugimendu gerta daitezke: Inmigrazioa (jaioterria ez den beste lurralde batean bizitzen kokatzea) eta emigrazioa (jaioterria utzi eta beste lurralde batera bizitzera joatea). Beraz, migrazio mugimenduen eraginez, herrialde bateko biztanleria-tasak hazkunde edota murrizketak izan ditzake. Beste kasu batzuetan, mugimendu naturalak ere izaten dira fenomeno horren eragile.

Normalean, etxea utzi eta atzerrira alde egiten duenak bizi-kalitate hobea bilatzeko asmoz hartzen du erabakia eta, horregatik, gertatzen diren migrazio mugimendu gehien gehienak herrialde txiroetatik aberatsetarantz, erregimen zapaltzaileetatik demokratikoetara eta baserrietatik hirietara izaten dira. Aipatu dugun bezala, migrazio mugimenduak, naturalak ez direnean, egoera hori eragiten duten arrazoi batzuk daude eta arrazoi horiek honako hauek izan daitezke: ekonomikoak, katastroferen batek eragindakoak, giza-arazoak, soziokulturalak etab. azter ditzagun, bada, sakonxeago:

Pobreziagatiko migrazioak: Pobrezia eta berdintasun eza dira emigratzeko arrazoi nagusienetakoak, izan ere, 1000 milioi pertsona bizi dira munduan egunean dolar bat baino gutxiagorekin¹. Talde horren barruan kokatzen diren migratzaileen tipologia honako hau da: 20-35 urte bitartekoak eta sexuari dagokionez lehen gehienak gizonezkoak baziren ere, emakumezkoak gizonezkoak adina izango dira laster.

Tipologia horretako biztanleria migratzailearen lehenengo helmuga petroliodun herrialdeak dira, bigarrena lurralde txiki, irla eta penintsulek osatzen dute (Monako, Hong Kong, Singapur...) hirugarren taldean biztanle gutxi dituzten lurralde handiak (Australia, Kanada...) laugarrenean Mendebaldeko herrialde industrialak (Europa da orain munduko inmigrazio-kontinente nagusia) eta bosgarren taldea iheslari kopuru handiak hartzen dituzten herrialdeek osatzen dute (Costa Rica, Iran, Pakistan, Etiopia, Sudan...).

Gaitasunagatiko migrazioak: Talde honetan kokatzen dira gaitasunak esportatzen dituzten herrialdeak. Migrazio hori gertatzen da planetako alde garatuenetan zehar; europarrei, ipar amerikarrei eta japoniarrei dagokioe eta, geroz eta gehiago, Asia eta Ekialde Hurbileko ingeniari eta teknikariei. Goi-mailako prestakuntza lehengai bilakatu da herrialde horientzat. 1910 urtean 42 milioi langile diplomatuk migratu zuten munduan barrena, 2000 urtean, aldiz, 59 milioi izan ziren. Beraz, borondatezko migrazio mugimendu horiek goranzko joera dute.

Migrazio politikoak: iheslari politikoak sortzeko moduko gatazkak dituzten herrialdeetan gertatzen dira migrazio mugimendu horiek. 2010 urte bukaeran, 25,2 milioi pertsona ACNUR erakundearen babespean zeuden, aipatu arrazoiengatik, laguntza eta babes eskaera egin zutelako.²

Katastrofe handiak: Hondamendi naturalek (lurrikarek, sumendiek, tsunamiek, uholdeek...) lekualdaketa handiak sortu dituzte historian zehar aldi guztietan. Arrazoi horiek direla eta, 2010 urtean 2 milioi pertsonari eman zitzaizen laguntza aipatutako erakunde beretik.

Nekazaritza exodoa: Herrietatik edota nekazal guneetatik hirirantz migratzeko joera XIX. mendean hasi bazen ere, 2007 urtetik aurrera erabateko aldaketa eman zen, geroztik, munduan gehiago dira hirietan bizi diren biztanleak baserri guneetan bizi direnak baino. 1800 urtean munduko populazioaren %2 zen eta NBERen arabera, 2030 urterako populazioaren %60 izango da.

Iragaitzazko herrialdeak: herrialde hauek oso erabiliak diren migrazio-bideen erdian kokatzen dira edo muga politiko eta araudizko harresien ondoan. Mexiko eta Maroko dira adibide argiak: Mexiko Hego Amerikatik AEBra doan bidearen muga dago eta Maroko Afrikatik Espainiarako sarbidea da. Herrialde horiek migrazioa oztopatzeko jarritako mugak dira nolabait eta gune horietan bide erdian geratutako emigratzaile pila geratzen da Europara edo AEBtara sartu ezinik.

Zio horiek edota beste batzuk direla medio, betidanik egon dira migrazioak, lurralde batetik bestera joateko behar edota nahia izan du gizakiak. Herrialde batzuek, gainera, historikoki izan dute migrazio mugimenduetan oinarritutako harremana: Magreb eta Frantzia, Pakistan edo India eta Britania Handia, Mexiko eta AEB etab. Baina 2000 urtetik egun arte dugun migrazio mota

ezberdina da; fenomeno berria dela esan dezakegu, izan ere, hiri eta herri paisaia inoiz baino gehiago aldatzen ari zaigu gizaki osakerari dagokionez, behinik behin. Geroz eta herrialde anitzagoetatik gertatzen dira mugimenduak: Asia eta Ekialdeko Europatik mendebaldeko Europara adibidez.

Lehenago aipatutako faktoreek eragina dute fenomeno berri horretan baina faktore berriak ere badaude: globalizazioaren garapen bizkorrak eragindako mugikortasuna adibidez. Komunikabide eta garraio bideetan gertatu diren aurrerapenak ahalbidetu dute migrazio internazionalak geroz eta hutsalago bihurtzea. Horrela, azken 35 urtetan bikoiztu egin da migratzaileen kopurua mundu mailan eta 2000 urtean 175 milioi pertsona baziren beraien herrialdeetatik kanpo bizi zirenak, egun, 232 milioi, populazioaren %3, hain zuzen ere.³ Hala ere, kontutan hartu behar da aipatutako faktore horiek ez direla linealak, aldakorrak baizik eta horrek dakarrela migrazio mugimenduen fenomeno dinamikoa eta geroz eta anitzagoa izatea.

Munduko migrazio mugimenduak



Iturria: Atlas de las migraciones, las rutas de la humanidad, lemonde.

Mapa honetan ikus daiteke, horiz, zein herrialdek dituzten emigrante gehien eta berdez, zein diren herrialde hartzaileak edo helburu herrialdeak. Bestalde, gezi urdinek adierazten dute langile imigranteen norantza eta gezi gorriek langile emigrante kualifikatuen norabidea.

3.1.MIGRAZIO MUGIMENDUEN ONDORIOAK

Immigranteen helburu herrialdeetan zein emigrazio gune diren herrialdeetan migrazio mugimenduek ondorio zuzenak eta zeharkakoak dituzte: ondorio demografikoak, ekonomikoak, gizarte ondorioak, kulturalak, identitarioak etab. azter ditzagun labor labor bada ere:

Demografiari begiratuz gero, emigratzaile asko dituzten herrialdeetan hiru aldaketa nagusi gertatzen dira:

- 1) populazioaren presioa arintzea
- 2) biztanleriaren zahartzea (emigratzen duena normalean jende gaztea delako)
- 3) migratzen duena baserri munduko jendea bada, eremu horiek hutsik geratzea, hiltzea.

Hartzaileak diren herrialdeetan, berriz, populazioa gaztetu egiten da heltzen diren immigrante gehienak gazteak direlako eta beraien seme-alabek jaiotza-tasa hazarazten dutelako. Bestalde, lan eskaera nagusia hirietan egoten denez, jende pilaketa eta masifikazioa sortzeko arriskua izan daiteke.

Kulturari dagokionez, alde batetik, herria uzten duten gehienak gazteak direla esan dugu, horrela, beraien sorlekuko tradizio eta ohituren transmisioan haustura gerta liteke, gazteak baitira trasnmisio hori egiteko protagonistak. Era berean, herrialdean ideia berritzaileak sortzeko aukerak behera egiten du eta zaila izaten da modernizazio prozesua gertatzea. Aukera on bat litzateke, emigratutako gazteek ikusi edota ikasitakoa beraien herrira ekarri eta martxan jarriko balute baina, zoritxarrez, gehienetan ez da hori pasatzen, joaten direnak itzultzen ez direlako.

Ekonomiaren ikuspegitik, herrialde igorlearentzat ondorio positiboak izan ditzake biztanleek emigratzea, batez ere, bertako pobrezia eta langabezia maila jaistea ekar dezakeelako baita ordainketa-balantzaren oreka eragin dezake kanpora joan denak senideei dirua bidaltzen badie. Herrialde harzaileentzat ere positiboa izan daiteke prekarietateaz baliatzen badira, hots, ez badute eskulana behar bezala ordaintzen.

Gizarte ikuspegitik, herrialde igorlea gazte jende gutxiagorekin geratzeak gizarte kontserbadore eta tradizionalistagoa eragin dezake. Bestalde, herrialde hartzailean aniztasun handia sortzeko aukera dago eta sor daitezkeen egoera berri horiei aurre egiteko integrazioa da giltza. Hiru integrazio eredu daude: asimilazioa, *melting pot* eta pluralismo kulturala.

Bestalde, migrazio mugimenduen ondorioz, helburu herrialdeetan sortzen den gizarte berria eta aniztasun kulturala ulertzeko modu asko daude. Kultura eta etnia aniztasun horrek kulturartekotasunarekiko jarrera irekiak praktikan jartzeko aukera eman dezake eta kolektibo guztiak aberastuko lituzke jokabide horrek. Kultura eta etnia ezberdin horiek jasoko dituen gizartea horretarako prest ez badago, berriz, arazoak sor daitezke, jarrera arrazista eta xenofoboak loratuz.

Edozein herrialdetan edozein migrazio motak izan ditzakeen ondorioez gain, Euskal herrian beste ondorio batzuk ere baditu migrazioak, hizkuntza, kultura, ohitura eta mundu sinbolikoaz ari naiz. Izan ere, Euskal herrira heltzen den etorkin askok jakin ere ez daki hemen beste hizkuntza bat badagoela. Fishmanen hizkuntza gutxituen gaineko diskurtsoari erreferentzia eginez, mintzaldatzea edo *language shift* delakoa da hizkuntza gutxituen desagertzea eragiten duten faktoreetako bat. Faktore horren eragileetako bat dislokazio demografikoa da, hau da, joan etorrien ondorioz geratzen den demografia aldaketa.

“Bere hizkuntzan egiten den herritik zeharo beste bat egiten den herrialde batera joaten bada jendea (bere gogoz eta hartara beharturik), edota berea ez den hizkuntza bat egiten duen jendea etortzen bazaio herrira, samaldan etorri ere, bere hizkuntza galtzeko arriskua begien bistakoa da”⁴

4. EUSKAL HERRIA: MIGRAZIO MUGIMENDUEN HERRIA

Euskal herria betidanik izan da migrazio mugimenduen herria. XIX. mendean meatzaritza hazkunde industrialaren ardatza izan zen Bilbo baita inguruko herriak ere eta horren ondorioz, eskulan eskaerari erantzunez, kanpotik langile asko etorri zen Bizkaiko burdina ustiatzera. Biztanleriak gorakada handia izan zuen garai horretan Bizkaian eta, Gipuzkoan etorkin olde hori geroago gertatu zen, XX. mende hasieran, hain zuzen ere.

XX. mendean, gerra zibila bukatzearekin batera, hazkunde ekonomiko berria izan zen, industrializazioaren eraginez, immigrante etorrera berria eman zen, Gaztela, Galizia eta Extremaduratik etorri ziren langile gehienak eta Euskal Herriko herri batzuek biztanleria-tasa bikoiztu zuten, hala nola; Ermua, Eibar, Barakaldo... 1970 urtetik aurrera, aldiz, mundu mailako krisiaren ondorioz, hainbat industriagunek atekak itxi zituzten, labe garaiena da adibide ezagunetarikoa. Horregatik, aipatutako herri horietara etorritako hainbat espainiar etorkin beraien herrietara itzuli ziren, beste batzuek bizi hobegoaren bila beste herri batzuetara jo zuten eta urte batzuk lehenago populazio-tasa bikoiztu zuten herri horiek kontrako efektua jasan zuten, hau da, demografia jaitsiera handia izan zuten.

XXI. mendean, immigrazio olatu berria izan zen Euskal Herrian, 1990. hamarkadatik aurrera etorrera masibo berri honen lehen zantzuak hasi ziren. Hala ere, etorkin olde berri hori ezberdina izan zen, etorkinak ez baitziren ohi bezala penintsulatik etortzen beste herrialde batzuetatik baizik (Maroko, Errumania, Kolonbia, Ekuador...). Hasierako urteetan, Araba eta Nafarroara etorri ziren gehienak, bertako nekazaritzarako eskulan beharra zela eta. 2000 urteaz geroztik, immigrazioa Hego Euskal Herri osora zabaldu zen.

2014						
	guztira	gizonak	%	emakumeak	%	urteko garapena
Araba	26.693	14.250	53,4	12.443	46,6	-5,8
Bizakaia	68.159	33.875	49,7	34.284	50,3	-7,7
Gipuzkoa	46.464	23.499	50,6	22.965	49,4	-0,5
EAE	141.316	71.624	50,7	69.692	49,3	-9,4

2015						
	guztira	gizonak	%	emakumeak	%	urteko garapena
Araba	25.948	13.742	53,0	12.206	47,0	-2,8
Bizakaia	65.041	32.319	49,7	32.722	50,3	-4,6
Gipuzkoa	46.408	23.558	50,8	22.850	49,2	-0,1
EAE	137.397	69.619	50,7	67.778	49,3	-2,8

Taulak: Ikuspegi. Immigrazioaren euskal behatokia.

Tauletako datuetan ikus ditzakegu Euskal Autonomi Erkidegoan, 2014-2015 urteetan dauden etorkin kopuruak sexuen arabera sailkatuta eta hiru lurraldeetan banatuta. Datu orokorretan jaitsiera egon dela ikus daiteke, egun dugun krisi egoerak eragin zuzena du jaitsiera horretan, izan ere, lanik ez badago etorkinek beraien herrira itzuli edota lana aurki dezaketene beste herrialde batera migratzen dute.

4.1. XIX. MENDEAN EUSKAL HERRIAN GERTATUTAKO MIGRAZIO MUGIMENDUAK

XIX. mendean, Euskal Herrian, aldaketa sozioekonomiko izugarria gertatu zen, nekazaritza eta artzaintzan oinarritutako gizartea zena gizarte industrializatu bilakatu zen, Bizkaiko meatzaritzaren ondorioz batik bat. Landa guneeetatik hiri-guneetara bizitzera joateko hautua egin zuen herritar askok, nekazaritza exodoa esaten zaio fenomeno honi. 1850 urtean hasi zen, baina, 1875 urtetik aurrera izan zen askoz nabariagoa. Lehen sektoreak eskulan asko galdu zuen eta industrializatzen ari ziren guneeetan emigrazio masiboak eman ziren, Euskal herritik bertatik baita Espainiako lurralde ezberdinetatik.


Etorkinen jatorria orokorrean, Galiziako inguru atzeratuenak, Penintsularen barnealdea eta Andaluzia izan ziren; helmuga herrialdea, berriz, Katalunia, Madrileko industria guneeak eta Euskal Autonomia Erkidegoa hasieran eta ondoren Levanteko, Balearretako eta Kanarietako turismo guneeak. Gerra zibila eta gerraostean industrietako lan-eskaintza murriztu egin zen eta berriro nekazaritza eremuek hartu zuten indarra.

Nekazaritza exodoak 1950-1970 urteen bitartean izan zuen hazkunde handiena, 1975etik aurrera, aldiz, beherakada handia izan zuen eta tradizioz immigrazio gune zen EAE emigrazio gune

bihurtu zen. Garai horretan, euskaldun asko eta askok Ameriketara emigratu zuen, historian zehar beste hainbatetan gertatu zen moduan. Colon Ameriketara heldu zenetik izan baita euskaldunen helmuga atlantikoaz bestaldeko kontinentea: konkista eta kolonizazioa izan zen lehenengo euskaldunen ihesaldia ameriketarantz, XVIII.mendeko merkatal konpainiei lotutakoa bigarrena eta XIX eta XX. mendeetan nekazaritza exodoari lotutakoa, karlistadak, lehen mundu gerra eta Francoren diktadurak eragindakoa hirugarrena.

Emigrazio horien erakusle da euskal diaspora, egun munduan zehar 4,5 milioi dira jaioterra Euskal Herria dutenak. Euskaldun horiek beraien izaera eta kultura mantentzeko eta euskaldunen elkargunea sortzeko euskal etxeak ireki zituzten helburu herrialdeetan, 160 euskal etxe dira Eusko Jaurlaritzak ofizialtzat dituenak, beste batzuk ez baititu errekonozitu. Horietako asko Ameriketara kokatzen dira.⁵

Les Centres Basques dans le monde Euskal zentroak munduan gaindi



4.2. XX. MENDEAN EUSKAL HERRIAN GERTATUTAKO MIGRAZIO MUGIMENDUAK ETA EUSKARAREN GAINEAN IZAN DUEN ERAGINA

Bigarren migrazio mugimendu garrantzitsuen 50. hamarkadatik 70. hamarkadara gertatu zen, hau ere industrializazioa eta hazkunde ekonomikoarekin lotuta. Etorkin gehienak Bizkaiara eta Gipuzkoara heldu ziren hasierako urteetan, Arabara geroago eta neurri txikiagoan Nafarroara. Imigranteak Extremadura, Andaluzia eta Galiziako nekazal guneeetatik etorri ziren eta Euskal herriko hiri eta herri handietan kokatu ziren batik bat. Hazkunde demografiko berri horren adierazle dira, euskaldunek egin zuten moduan, XX. mende hasieran sortutako herrialde-etxe ezberdinak: galiziako etxea, gaztelako etxea eta extremadurako etxea adibidez.⁶

Immigranteek herrialde berrira heltzean, behar zuten lehenengo gauza etxebizitza eta lana aurkitzeko laguntza zen, horregatik, bizi berria hasteko tokia aukeratzeko orduan, jatorrizko herriko edo probintziako norbait aurkitzen saiatzen ziren, familiako kide bat etortzen zen lehenengo lanera eta ondoren, pixkanaka familiako beste kide batzuk: lagunak, bizilagunak etab. etortzen ziren, gaur egun gertatzen den bezalaxe. Landa guneeetatik guztia utzi eta Euskal Herrira lanera etortzen ziren eta beste gauza batzuen artean hizkuntza berriarekin egiten zuten topo, euskararekin. Integrazioaren bidean, hizkuntzarena tirabira handia sortu duen gaia izan da eta oraindik ere zer esana ematen duena.

Xabier Aierdi EHUko soziologia irakasleak hainbat artikulua idatzi ditu gaiaren gainean eta integrazio prozesu horretan arazo handienetako bat euskal nazionalismoa eta espainiar immigrazioaren arteko talka dela esaten du, kronologikoki garai berean eman zirelako bi gertaera horien loraldiak: *“Imigrazioa arazo sozial bilakatuko da euskal nazionalismoaren asmoetan, edozein nazionalismok, bere helburuak justifikatzeko lurralde jakin bateko populazioaren homogeneitate kulturala argudiatzen du... ondorioz, nazionalismoaren oinarrian honelako formula dago: lurralde bat, kultura bat, nazio bat, estatu bat”*.⁷ Hau da Aierdik, garaiko gertaerak ikertuz, espainiar immigranteak integratzerako orduan ikusten duen arazoetariko bat.

Horrez gain, esaten du etorkin gehienak hirietan edota herri ertainetan kokatu zirela eta gune horiek ez zirela, lehen behintzat, euskalduntasunaren gune indartsuenak, beraz, etorkinak euskararen presentzia eskasena zuten tokietan kokatu zirela eta beraiek egoeraren ispilu izan direla, finean, ez zirela euskararen egoera okertzeko faktorea izan.

Garaiko kultura talka oso ondo azaltzen da Jon Maiaren *Riomundo* liburuan, hona hemen pasarteetako bat:


- Buenas tardes. Un café.
- Hau ere, han nonbaitekoa diagu...sí, hombre, ¿Café sólo?
- Sí, sólo café.
- Perdona, podría decirme dónde puedo encontrar el bar Aramendi, plaza Ipari-gi-re?
- Como no hable usted mejor, no sé.⁸

Horrelako egoerak egun ere gertatzen dira bi norantzatan (euskaldunetatik erdaldunetara eta alderantziz) eta hizkuntza eskubideen zapalketak eragiten dituzte. Horrelako gertaerei aurre egiteko, jokaera asertiboek lagun diezagukete, horixe erakutsi digu, beste gauza batzuen artean, Gemma Sanginés irakasleak TELP (Taller d'espai Linguistic Personal) ikasgaiari.⁹

Bestalde, eta arrazoiak arrazoi, azken mendeetan euskararen eremua murrizten joan dela ezin dugu ukatu, 1866 urtean, adibidez, 902.000 euskal herritarretatik erdia euskal eleduna zen⁹, egun, ostera, biztanleriaren %25 da euskalduna. Jaitsiera hori eragin duen faktoreetako bat migrazio mugimenduak direla dioenik ere badago, horrelaxe ikusi dugu behintzat Hizkuntza gutxituak nazioarte mailan, HIZNET ikastaroko ikasgaiari: “...emigrazioek ez ezik, inmigrazioek, hau da, beste toki batzuetatik etortzen direnek ere eragin zuzena dute hizkuntza gutxitzerakoan...”¹⁰ Horrez gain, egungo errealitate bat aipatzen du, etorkinen seme-alabak orokorrean A ereduan matrikulatzeko dagoen joera¹¹. Hala ere, esan beharra dago, Patxi Juaristik argi eta garbi uzten duela bere ustez, euskararen benetako arazoa diglosia egoera dela eta ez etorkinen etorrera.¹²

Ni bat nator Juaristiren euskararen arazoa diglosia egoera dela esaten duenean, izan ere, ez dugu ahaztu behar gaur egun euskal herritarren % 25ek hitz egiten dugula euskaraz. Bat aldizkariko artikulu batean Julen Arexolaleibak egindako ekarpenak oso iruditzen zaizkit zuzenak, azaltzen baitu nola populazioaren laurden batek soilik dakigun euskaraz eta denok dakigun gaztelera. Beraz, etorkinak gaztelera ikasten badute, galdetzen du ea ez ote dauden integratuta, ea etorkinei eskaintzeko eskatzeko beste daukagun: “*Ba ote daukagu eskubiderik, beste batzuentzako ñabardura bat besterik ez dena (euskara) eskatzeko, indartzeko, aukerak emateko eta abar? Ni baiezkoan nago.*”¹³

Mapan ikus daiteke Euskal Herriko euskaldun kopurua herrialdeka. Bizkaiko populazioaren % 25 da euskalduna, gipuzkoarren erdia, Araban % 16,2, nafarroan % 11,8 eta Iparraldean % 22,8.



Iturria: soziolinguistika klusterra

4.3. EGUNGO EGOERA ETA INTEGRAZIOA

60-70eko hamarkadetan Espainiako immigranteak jaso zituzten eskualdeek jaso dituzte orain ere etorri berriak: nagusiki: Durangaldea, Bidasoa beheera eta Goierri. EAeko etorkin guztien % 48,7 Bizkaian kokatzen da, % 26,1 Gipuzkoan eta % 25,1 Araban. Proporzionalki (lur eremua eta biztanleria kontuan hartuta) Araba da etorkin kopuru handiena duena.¹⁴

Herri euskaldunetan Amerikako jatorria duten etorri berri gutxiago dago, eta horiei herri erdaldunagoetan finkatzeko joera antzematen zaie. Udalerrri euskaldunek izaera industrial nabarmena dute: durangaldea, debabarrena, debagoiena, sakana, goierri... eta horregatik heltzen dira etorkinak herri horietara lan bila. Ondorioz, udalerritik kanpo jaio diren biztanle kopurua asko hazi da 2001-2011 artean: hegoaldean % 5,1 eta arnaguneetan % 15,5.¹⁵

Gainera, lan eta bizi herrian egiten duten herritarrak gero eta gutxiago dira; arnaguneetan inon baino gehiago urritu da talde hori. Horrek badu eragina euskararen garapenean, izan ere, lana herritik kanpo egiteak herriko hizkuntza ohituretan eragina izan dezake.

Egun dugun egoerari begiratuta, Euskal Herrira heltzen diren immigranteek bizitza berriari ekiteko hainbat arazo izaten dituzte: etxebizitza, lana, osasuna, haurren eskolaratzea etab. baina guzti horretaz gain, immigrante askok heltzen direnean, hemen hizkuntza ezberdin bat existitzen

dela ere ez dakitela heltzen dira eta kultura, ohitura eta hizkuntza berriarekin egiten dute topo, euskal munduarekin, hain zuzen ere. Ondorioz, herritar horien aukera berdintasuna eta integrazioa bermatze aldera ezinbestekoa da euskal munduan sarrera izan dezaten.

XX. mendeko egoera ekonomikoarekin alderatuta gaur egungoa ezberdina da, egungo lan merkatua oso prekarizatua dagoelako eta sistemari eskulan ilegala izatea interesatzen zaiolako, horrek integrazioan traba handia jartzen du etorkinak lana dagoen tokira joateko mugikortasuna izan behar duelako. Horrez gain, estatu bakoitzak bere politikak ditu eta gehienen oinarrian dagoen araua da etorkinen aldeko politikek bertakoen erosotasuna zalantzan ez jartzea. Ondorioz, asimilazioaren integrazio eredua zabaldu da, hau da, etorkina integratzen da gu moduan bizi denean, asimilatzen dugunean. Horrela planteatuta badirudi etorkina dela integratzeko ahalegina egin behar duen bakarra eta aipatutako faktoreengatik ez da lan erraza, horren harira aipamen interesgarri bat:

“Apurka-apurka gainditu egin behar dira “haien” (immigranteak) eta “gure” arteko ezberdintasunak azpimarratzen dituzten ikuspegiak, baita horiek islatzen dituzten hezkuntza-filosofiak ere, hots, integrazioa norabide bakarreko bidetzat (haiek guganantz) hartzen dutenak.”¹⁶

Beraz, integrazioa bi norabideko elementu bezala planteatu behar da eta horretarako oinarritzkoa da gureak bezalako eskubide eta betebeharrak bermatzea immigranteei eta gainera, integrazio sozial eta kulturalak orekatuta joan behar dute. Bide horretan, ezinbestekoa da etxeko ateak zabaldu eta etorkinei gure sareetan sartzeko aukera ematea, ezin ditugu etsai bezala ikusi, bestela, ez delako egongo elkarlanik eta finean, guk transmititu behar dizkiegu kultura, hizkuntza eta orokorrean euskararen mundu sinbolikoak dakarren guztia. Arexolaleibaren hitzei jarraiki: *“gutxi gara eta etorkizunean ere gutxi izaten jarraituko dugu baina horrek ez du esan nahi beste inor baino gehiago edo gutxiago garenik, zer garen erakutsi behar diegu etorkinei eta txikiak izanik gizarte eder bat eraikitzeke aukera dugu.”¹⁷*

Aipatutako horiez gain, etorkinak integratzeko bidean, oinarritzko behar batzuk asebeteta edukitzea ezinbestekoa da: erresidentzia baimen iraunkorra, eskolaratzeko eskubidea, etxebizitza duinerako eskubidea, lan-munduan sartzeko eskubidea eta eskubide politikoak aitortzea. Behin oinarritzko baldintza horiek asetuta dituztenean, hizkuntzaren aldeko motibazioa ere landu ahalko da. Hala ere, bide hori egiten ari gara jada, poliki-poliki, etorkinen bigarren belaunaldia euskalduntzeko bidean jarrita gaude eta helduak euskalduntzeko proiektuak ere martxan daude, aurrerago aztertuko ditugun, Aisa harrera ikastaroak, hain zuzen ere.

Horrez gain, argi izan behar dugu euskararen arazo nagusienetakoa ez dela immigrazioa, euskarak biziraungo badu, hiru elementu hauek kontutan hartuko direlako biziraungo duela: lehenengo eta behin, euskaldun osoak lortzea/sortzea gaitasun, koherentzia eta kontzientzia linguistikoari dagokionez. Bigarrena proiektu erakargarriak bideratzeko indarra: irakaskuntzan eta gizarte arloko gainontzeko eremuetan. Eta, azkenik, lege estatusa.

Aniztasuna guztion irakaskuntzan laguntzeko aberastasun bat da, aukera bat. Edozein elkarbizitzatan gertatzen den bezala, errespetua da kultur aniztasun handidun gizarte baten oinarria, hori dela eta, ezinbestekoa da kultur ezberdinen arteko trukeak indartzea. Gainera, kultura berri horri finkatuta dagoen gizartean, errespetua adierazteaz gain, harrera eman behar zaio. Eta harrera ematea da errekonozimendua ematea, aukera-berdintasuna bermatzea eta gizartean integratzeko beharrezko dituzten tresna eta baliabideak eskura jartzea.

Bide horretan, 2003an Eusko Jaurlaritzak Immigrazioari buruzko lehenengo plana egin zuen, bertan zehaztu ziren pausu batzuk administrazio publikoak egin beharrekoak planifikatu eta koordina zituzten. Plan horrek batzen zituen administrazioek burutzen zituzten lanez gain, sustatu nahi ziren berriak. Egun, Ikasle etorkinentzako hezkuntza-arretarako programa, eskola-eredu inklusibo eta kulturartekoaren barruan delako plana dugu abian, 2012-2015 urte bitartean iraungo duena.¹⁸

5. ETORKINAK ETA EUSKARA: Zergatik da garrantzitsua etorkinek euskara ikas dezaten?


Aurreko atalean ikusi dugu, iritziak iritzi, etorkinena euskararen erabileraren garapenean, erabilerak beherantz egiteko faktore bat izan daitekeela, baina inondik ere ez euskararen galeraren arrazoi nagusietakoa, hori, diglosia egoera dugu. Diglosia egoera horrek Euskal herria bi mundutan¹⁹ banatzen du, euskara eta euskal mundua ezagutzen dutenak eta ez dutenak ezagutzen. Eta, benetako integrazioaz hitz egiten ari bagara; etorkinek eskubide, betebeharrak eta aukera berdinak izatea nahi badugu, euskara ezagutzea ezinbestekoa da. Orain heltzen ari diren etorkinen seme-alabei begiratuz gero, euskara ikasten ez badute, ez dituzte aukera berdinak izango, lanpostu bat lortzeko edota harreman sareetan sartzeko adibidez. Gainera, haur horiek bizi diren herrian gainontzeko hurrekin integratzeko zailtasunak izango dituzte eta euskararen erabileraren jaitzieran ere eragin zuzena izan dezake.

Egun, etorkinen seme-alaba gehienak hezkuntza sistema publikoan eta D ereduan matrikulatzen dira, azken urteetan aldaketa handia gertatu da datu hauei dagokienez, 2006-2007 ikasturtean, adibidez, A ereduan matrikulatzen ziren etorkinak gehiago ziren D eredukoak baino. 2014-2015 ikasturtean ikasleen % 51,9 D ereduan eta % 6,6 A ereduan, izan ere, 12 dira EAEn A eredua mantentzen duten ikastetxeak eta Gipuzkoan bat bera ere ez dago jada. Ikastetxe kontzertatuetan ikaslego immigrantearen % 31,42²⁰ matrikulatu da aurten, eta publikoarekiko desoreka mantentzearen arrazoiak matrikulazio irizpideak eta maila ekonomikoa dira. Horrez gain, gaur egun, honelako kasuak gertatzen dira: 1400 ikasle dituen ikastetxe batean etorkin bat bera ere ez egotea eta 216 ikasle dituen beste ikastetxe batean 105 etorkinak izatea, egoera horren adibide dira Gasteizko Sansomendi eskola publikoa, Bilboko Txurdinaga-Artabe edota Txurdinaga Artatxe. Joera horrek *ghetto*ak sortzeko arriskua ahalbidetzen du eta integrazioa alboratu. Horrez gain, aniztasun handiagoa dagoen ikastetxeetan, normalean, HIPI proiektua egon ohi da martxan. Ikasle etorri berriari arazo linguistikoetan laguntzeko eta ibilbide akademikoa ahalik eta normaltasun handienaz egin dezan sortutako proiektua da. Baina ez dakit zenbateraino den egokia praktika hori, etorri berriei eskaintzen zaizkien ordu horietan ikasleak gelatik ateratzen baitituzte eta beste gela batean sartu eta metodologia horren bidez integrazioaren alde baino kontra egiten dela uste baitut. Egokiagoa litzateke ikasle guztiak gela berean mantendu eta behar izanez gero beste erritmo bat hartzea edo eskolaz kanpo errefortzu eskolak ematea.

Dena den, Eusko Jaurlaritzak badu Ikasle etorkinentzako hezkuntza-arretarako programa²¹, aurten bukatzen den plana da 2012-2015 bitartean inplementatutakoa, beraz, laster ikusi ahalko dugu zein emaitza izan duen. Beraz, pixkanaka beharrezkoak diren neurri eta baliabideak aukeratu eta bigarren belaunaldiaren euskalduntzea gauzatzen ari gara edo bide horretan jarrita gaude.

IKASLE ATZERRITARRAK

2000. urteko hamarkadan




Iturria: Ikasle etorkinentzako hezkuntza-arretarako programa

Grafikoan ikus daiteke nolako hazkundera izan zuen ikasle atzerritarren taldeak euskal hezkuntza sisteman 2000 urteko lehen hamarkadan. Argi eta garbia da goranzko joera eta egun ere norabide horri jarraitzen diote datuek.

Bigarren grafikoan 2006-2010 ikasturteen artean, oinarrizko hezkuntzan, ikasleak zein saretan aritu ziren ikus daiteke. Aurretik aipatu dugun moduan, sare publikoan zeuden ikasle gehienak eta lau urteko epean joera goranzkoa izan zen, horrela % 8tik % 11ra igo zen sare publikoan zeuden ikasleen kopurua 2010 urterako. 2015-2015 ikasturtean ere joerak bere horretan jarraitu du.

OINARRIZKO HEZKUNTZAN DAUDEN IKASLE ETORKINAK

sare eta patronatuka 2006-2010 bilakaera



Iturria: Ikasle etorkinentzako hezkuntza-arretarako programa

Helduen gaira bueltatuz, egia da, Aierdik dioen moduan, etorkinek (lantegian lan egin eta auzoan bizitzeko) ez zutela euskararen beharrik izan eguneroko bizitzan industrializazioaren hazkundearen garaian; orain ere, Euskal Herriko hainbat herritan bizi daiteke euskara erabili barik, baina etorkin horiek ez dute euskal mundua ezagutzen eta ez dira euskal munduan integratuko. Jon Sarasuaren aipamen bat horren harira: *“Euskara etorkinengana hurbiltzea hauen integrazio zabal aberasgarria ahalbidetzeko eta euskara bera erabilera-eremu demografikoki dinamikoetara eramateko modu ezinhobea da. Etorkizunean, eta migrazio mugimenduek orain arte erakutsi duten hazkundeari eusten badiote, etorkinen euskara gaitasunak zeresan handia izango du hizkuntzaren osasun orokorrean”*.²²

Etorkinek euskara ikasteak eta euskal munduarekin kontaktuan jartzeak bi aldetarako eragina du; alde batetik, benetako integrazioa, bizikidetzeta eta aukera berdintasuna eta, bestetik, euskarari eragin diezaiokeen bultzada. Integrazioak erabilera-mailan lagunduko luke eta hori oso garrantzitsua da arnaguneetan adibidez. Izan ere, arnaguneei dagokienez, Zalbidek dioen moduan: *“euskararen etorkizuna ez dago Tuteran, Astigarragan baizik”*.²³ Beraz, bereziki zaindu beharrekoak dira gunek horiek. UEMAREN datuen arabera, arnagune diren herri batzuk industrigune direnez eta etorkinak lanera joaten direnez, bertako hizkuntza ohiturak mantentze aldera eta

etorkinak integratzeko, euskara ezinbesteko baldintza izango da. Arnasguneak ez ezik, hiri-guneetan ere immigrante asko finkatzen da, hori dela eta, hirietako erabilera-mailari bultzada egiteko talde interesgarria da etorkinena.

UDALERRITIK KANPOO JAIOTAKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA 1991-2011

Eskualdea	Hazkundera	
	1991/2001	2001/2011
Plentzia-mungia	69,3	43,9
Bilbo handia	12,0	35,9
Gorbeia inguruak	31,8	12,4
Ultzamaldea	-5,8	52,7
Arrati nerbioi	7,9	31,7
Donostialdea	14,0	18,6
Urola-kostaldea	12,9	16,9
Bidasoa behekoa	17,2	11,7
Goierri	2,6	27,2
Debabarrena	9,7	19,0
Bortziriak	3,7	19,4
Bidasoa garaia	13,6	7,5
Baztanaldea	-3,2	21,0
Tolosaldea	4,5	10,3
Gernika-Bermeo	1,0	12,4
Lea Artibai	-2,2	15,6
Aralarko iparraldea	-0,4	9,8
Sakana	8,3	0,9
Debagoiena	-0,5	9,2
Durangaldea	-1,0	7,7
Auñamendi	-27,8	-1,7
OROTARA	6,5	15,5

Iturria: UEMA [Biztanleriaren jatorria lurgunek euskaldunetan](#) Oharra: hazkunde handienetik txikienera ordenatuta.

Datu hauek irakurtzeko, kontutan hartu behar da eskualde barruan gertatutako mugimenduak ere zenbatuta daudela. Azken bi hamarkadetako datuei begiratzen badiegu, ikusiko dugu hazkundera nahiko desorekatua izan zela, ez zela lineala izan, alegia. Muga honetaz jabeturik, 1991/2011 epean Plentzia-Mungia, Gorbeia Inguruak, Bidasoa Beherea eta Donostialdeako lurgune euskaldunek gorakada handiena eta landa eremuko hainbat eskualdek jaitsiera handienak izan zuten. Azken hamarkadan, ostera, Ultzamaldean, Bilbo Handian edo Arrati Nerbioin metatu ziren gorakada nabarmenenak, baita Plentzia-Mungian berriz ere. 2001/2011 epean soilik Auñamendik izan zuen bilakaera negatiboa.

5.1. ETORKINEK EUSKARA IKASTEKO DITUZTEN AUKERAK


Etorkinek EAEan euskara ikasteko dituzten aukerak bi talde nagusitan banatzen dira: autoikaskuntza, eta hau aipatzen dudanean, lan autodidaktari buruz ari naiz, horretarako norberak herrian, kalean, lagunartean egin dezake bidea. Alfabetatu gabea izan daiteke bide hori, hau da, entzun eta mintzatuz hizkuntza ikasi, euskara ulertu eta hitz egiteko moduko maila lortuz. Euskara bere kasa ikasi nahi duenak, lau trebetasunak landuz, eskura ditu sarean hainbat baliabide²⁴ eta paperean bakarka egiteko prestatuta dauden hainbat material.²⁵

Bigarren taldean, berriz, ikas-prozesu gidatuak dituzte, hots, aurrez aurreko eskolak. Euskaltegiek eskain ditzaketen ikastaroen gain, etorkinentzat propio sortutako ikastaroak martxan ditu HABEk, Aisa harrera ikastaroak, hain zuzen ere. Finean, etorri berriek hizkuntza bera ikasteak duen garrantziaz gain, euskal kultura ezagutzeak duen garrantzia ezin dugu ahaztu eta horretara zuzenduta daude Aisa harrera ikastaroak.

5.2. EUSKARA IKASTEN DUTEN ETORKINEN TIPOLOGIA:

HABEren datuen arabera, gero eta gehiago dira euskaltegietan euskara ikasten duten etorkinak. 2014/2015 ikasturtean 62 Aisa talde sortu dira EAEko euskaltegi ezberdinetan (udal euskaltegiak eta Habek homologatutako euskaltegietan: Ika, Aek, Maizpide eta Gotzon Garitaonandia euskaltegiak) gutzira 661 ikasle aritu dira ikasten. Aurreko ikasturteetako datuei begiratzen badiegu, ikasle kopuruak goranzko joera izan duela ikus dezakegu.

IKASLE ETORKINAK EUSKALTEGIETAN



Datuak: Helduen Euskalduntzeraen azterketa, Hizpide.

Etorkinen euskara ikas-prozesuari dagokionez, A1 mailan aritzen dira gehienak, % 30 lehen urtean gelditzen dira, % 11 2. eta 3. ikasturteetan. Guztira egiaz euskaldundu direnak % 38 eta % 21 horietara gehituko direla uste da (beraien ikas-prozesuak orain arteko ibilbidea jarraitzen badu), bukatzeko, hobekuntzaren sailan sartzen direnak % 7 dira.²⁶


	2007-2008	2008-2009	2009-2010	2010-2011	2011-2012	2012-2013
A1	61,18	67,08	58,27	58,50	60,20	55,37
A2	11,93	11,25	16,38	15,25	14,68	16,06
B1	13,38	11,50	13,54	12,69	12,56	14,70
B2	9,18	6,75	6,51	8,44	7,50	8,21
C1	4,13	3,32	4,99	4,83	4,62	5,08

TAULA: Helduen Euskalduntzeraen azterketa, Hizpide.

Ikasleen jatorriari dagokionez, Aisa ikastaroetako datuak kontutan hartuta, datu zahar samarrak ditugun arren, joerak berdina izaten jarraitzen du. Ikasle gehienak %66,7 latinoamerikarrak dira (kolonbiarrak, boliviarrak eta ekuadortarrak gehienak). Ikasle afrikarren artean marokoarrak eta senegaldarrak dira nagusi.

AISA IKASTAROETAKO IKASLEEN JATORRIA

04-05 ikasturtea



Iturria: ikasbil, Habe.

6. AISA HARRERA IKASTAROAK:


Aisa harrera ikastaroak Habek jarri zituen martxan 2004 urtean eta ikastaro horien helburua da etorkinak euskara ikastera bultzatzea, Euskal Herrian bizi diren etorkinen hizkuntza-premiei erantzutea eta oinarrizko ezagutza bermatzea. EAEn bizi diren Europako Batasunaz kanpoko etorkinei zuzendutako ikastaroak dira eta EAEko edozein herritan antola ditzakete herriko udal euskaltegi edota euskaltegi homologatuek bertako euskara teknikariarekin eta Haberekin lankidetzan. 60 orduko ikastaroak dira eta euskaltegietan, euskal gizartea ezagutzeko aukera eskaintzen duten gaiak jorratzen dira hizkuntzaren oinarrizko mailako nozio batzuk lantzeaz gain. Gainera, diruz lagunduta daude, beraz, ikasleak ez du euskara ikasteagatik ordaindu behar eta ikasturteko bi ikastaro egiteko aukera dago. Ikastaroen gidariak Habek homologatutako euskaltegietako irakasleak dira eta ikastaroetarako propio sortutako materiala dago eta erabili behar da.

2004 urtean, Eusko Jaurlaritzaren Immigrazio zuzendaritzak aukeratutako tokietan eskaini ziren ikastaroak, hiriburuetan eta etorkin kopuru handia zegoen herrietan. Emaidza ez zen oso ona izan, 5 talde sortu baitziren ikasturtearen lehen hiruhilekoan eta beste 4 bigarren hiruhilekoan. Guztira: 9 talde eta 100 ikasle aritu ziren.

2005 urtean, aldiz, euskaltegiei malgutasun handiagoa eman zitzaaien (ordutegiak, eskola egunak, erritmoa etab.) eta ikastaroak noiznahi antolatzeko baimena eman zitzaaien udalei. Ondorioz, matrikulazioak gorakada handia izan zuen, 325 ikasle aritu ziren eskoletan, 32 talde 21 udalerritan. Urtez urte egindako lanak fruituak ematen jarraitzen du eta lehenago esan dugun moduan, aurten, 661 izan dira Aisa ikastaroetan aritu diren ikasleak.

Azken bi ikasturteak kontutan hartuta, matrikulatutako ikasle kopurua antzekoa da, 2013-2014 ikasturtean 670 ikaslek eman zuten izena ikastaroa egiteko. Herrialdeka Gipuzkoa da ikasle kopuru handiena pilatzen duen herrialdea, 357 ikaslerekin. Horietatik 70 Goierriko Goiztiri Aek euskaltegian aritu ziren 13-14 ikasturtean, 7 talde sortu ziren. Bizkaian 250 ikaslek eman zuten izena, Gotzon Garitaonandia euskaltegian, Bermeon, 8 taldetan banatuta 96 ikasle eta Lea Artibaiko Aekn 9 taldetan banatuta 80 ikasle aritu ziren. Araban, berriz, Kopurua baxuagoa da, Gasteiz-Adur euskaltegian soilik sortu ziren Aisa taldeak, 4 talde egin ziren 63 ikaslerekin.

AISA IKASTAROAN MATRIKULATUTAKO IKASLEAK



Iturria: habe

2014-2015 ikasturtean, 9 ikasle gutxiago aritu dira euskara ikasten. Herrialdeka begiratuta aldaketa batzuk ikus daitezke: Bizkaian ikasle kopuru jaitsiera nabarmena izan da, iaz 250 aritu zirela esan dugu eta aurten 180. Horietatik ikasle kopuru handiena iazko euskalategi berberetan izan da, hau da, Bermeoko Gotzon Garitaonandia euskalategian (53 ikasle, nahiz eta bizkaiko ikasle kopuru handienetako bertan pilatu, iaz baino 43 ikasle gutxiagok eman dute izena, beraz, jaitsiera handia izan da) eta Lea Artibaiko Aekn (5 ikasle gehiago matrikulatu dira aurten). Horrez gain, Portugaleteko udal euskaltegiko eta Hego uribeko Aekko taldeak desagertu dira. Durangaldean eta Sestaon iazko kopuruak mantendu dira talde kopuruari dagokionez.


Gipuzkoan gorakada izan du matrikulazioak, iaz 357 ikasle aritu ziren eta aurten 425. 2013-2014 ikasturteko joerari jarraituz, Goierriko Goiztiri Aek euskalategian ikasle kopuru handia pilatu da, 85 ikasle 10 taldetan, iaz baino 3 talde gehiago, beste euskalategi batzuetan ere hazkundera egon da: Maizpiden 2 talde gehiago, Andoaingo Aekn 2 talde gehiago, Eibarraldeko Aekn talde bat gehiago eta Arrasateko udal euskalategian 2 talde gehiago. Jaitsiera ere izan dute euskalategi batzuek: Zarauzko udal euskalategian talde bat gutxiago sortu da, Urretxu Zumarragako udal euskalategian talde bat gutxiago; bukatzeko, Urrats eta Oarsoaldeko Aekko taldeak desagertu dira, beraz,

euskaltegiok talde bana galdu dute aurten.

Araban, Gasteiz-Adur euskaltegian izan dituzte aurten ere arabako Aisa Talde bakarrak eta 4 izan dira, iaz bezalaxe, hala ere, 7 ikasle gutxiagok eman dute izena aurten.

Aztertu beharko dira Bizkaiko jaitsiera horren arrazoiak hurrengo ikasturteetan matrikulazio datuak hobetze aldera, batez ere, Bermeoko kasua, 4 talde galdu baitituzte. Jaitsiera horren eragileetako bat lan eskaintza izan daiteke. Gipuzkoako arrakasta oso esanguratsua da eta arrakasta horren arrazoia Goierri gune euskalduna izatea eta industria eta lan eskaintza direla esango nuke.

AISA IKASTAROETAN MATRIKULATUTAKO IKASLEAK



Iturria: Habe

Hurrengo tauletan aztertu ditugun datuen taulak ikus ditzakegu, datu xeheagoak izate aldera: Ikasle kopuruak pixka bat beherantz egin badu ere, talde kopurua igo egin da, Aisa talde bat gehiago sortu da aurten.

AISA IKASTAROAK 2013-2014 IKASTURTEAN EAEn		
EUSKALTEGIA	TALDE KOPURUA	IKASLE KOPURUA
Gasteiz-Adur	4	63
Zarauzko U.E.	3	55
Urretxu-Zumarragako U.E.	2	20
Bergarako U.E.	2	23
Arrasateko U.E.	2	19
Urrats (Donostia)	1	10
Eibarraldeko Aek	1	12
Urola-kostako Aek	2	22
Debagoienako Aek	2	25
Leintz U.E. (Aretxabaleta)	1	11
Oarsoaldeko Aek	2	18
Goierriko Goiztiri Aek	7	70
Maizpide (Lazkao)	3	31
Andoaingo Aek	4	31
Debabe U.E. (Elgoibar)	1	10
Gotzon Garitaonandia (Bermeo)	8	96
Durangaldeko Aek	3	29
Lea Artibaiko Aek	9	80
Sestaoko Aek	1	14
Portgaleteko U.E.	1	12
Hego uribeko Aek	2	19
GUZTIRA	61	670

AISA IKASTAROAK 2014-2015 IKASTURTEAN EAEn		
EUSKALTEGIA	TALDE KOPURUA	IKASLE KOPURUA
Gasteiz-Adur	4	56
Zarauzko U.E.	2	32
Urretxu-Zumarragako U.E.	1	11
Bergarako U.E.	2	27
Arrasateko U.E.	4	39
Urrats (Donostia)	2	26
Eibarraldeko Aek	2	24
Urola-kostako Aek	3	17
Azpeitiko U.E.	1	17
Leintz U.E. (Aretxabaleta)	1	15
Goierriko Goiztiri Aek	10	85
Maizpide (Lazkao)	5	53
Andoaingo Aek	6	52
Debabe U.E. (Elgoibar)	1	14
Zornotza U.E.	1	13
Gotzon Garitaonandia (Bermeo)	4	53
Durangaldeko Aek	3	29
Lea Artibaiko Aek	9	85
Sestaoko Aek	1	13
GUZTIRA	62	661

Iturria: Habe

Beraz, azken bi ikasturteetan datu orokorreki begiratu gero, bere horretan mantendu dira. Hurrengo ikasturteetarako, Aisa ikastaroak antolatzeko, herrietako euskaltegi eta euskara zerbitzuen arteko komunikazio eta antolamentu egokia hartuz gero, kopuruek goranzko joera izango dute, gero eta etorri berri gehiago baitugu gure herrietan. Horrez gain, interesgarria litzateke jakitea Aisa ikastaroa egin ondoren, zenbat ikaslek jarraitzen duten ikas-prozesua euskaltegietako ohiko taldeetan. Harrera ikastaro horien helburua etorkinak euskal mundura hurbildu eta euskara ikastea izanda, lorpen handia litzatekeelako ikasleak Aisa ikastaroa bukatu eta hurrengo ikasturtean urritik ekainera bitarteko ikastaroetan matrikulatzea.

Helburu horiek lortze bidean, arazo ezberdinak sortzen dira eta handienetakoa matrikula ordainketarena da, izan ere, ikasleak ikasturte osoko matrikula ordaindu behar du urritik abendura bitartean eta nahiz eta, asistentziaren araberako diru-laguntzak egon udalerrri gehienetan, arazoa izaten da beraiek diru kopuru hori aurreratu behar izatea. Beraz, arazoari aurre egiteko modu egokia litzateke beka sistemaren baldintzei moldaketa egitea.

Beste arazo bat ikasleen asistentzia da, lanpostu ezegonkorrek, haurren zaintzak eta beste oinarrizko behar batzuk asetuta ez izatearen ondorio izaten da gehienetan asistentzia baxuaren zergatia. Gainera, batzuetan, ikasteko ohitura eza eta analfabetismoa ere izaten dira eta ondorioz, ikasle batzuk ez dira gai izaten taldearen erritmoa jarraitzeko. Arazo hauek aurrerago azalduko ditugu sakonago.



Ikastaroaren logotipoa

6.1. AISA HARRERA IKASTAROETAKO MATERIAL DIDAKTIKOAREN EBALUAZIOA

Aisa harrera ikastaroetako material didaktikoa Habek Planiker enpresarekin lankindetzan sortutako da. Materiala 60 ordutako ikastaroa emateko prestatuta dago; ikaslearen liburuan 20 ikastunitate dira lau liburutan bilduta, horrez gain, bideoak, entzungaiak eta atazak daude eta gaika sailkatutako irudi bidezko hiztegi bat 1000 hitz inguru biltzen dituena.

Belen Benitez, Planiker enpresako material-egileak diotenaren arabera, eginkizun komunikatibo baten inguruan hainbat jarduera egin behar ditu ikasleak eta planteatzen diren gaiak Euskal Herriko kulturarekin zerikusia duten xehetasunak ematen dituzte eta gaiaren inguruan ikasleek dituzten iritziak jasotzeko balio dute.²⁷ Horretarako liburuan, Juliana izena duen pertsonaia asmatu dute gidari lana egiteko eta ikastunitate guztietan egoera komunikatiboa aurkezten du. Ikaslearen liburua euskaraz eta gazteleraz idatzita dago eta irudi bidezko hiztegia euskaraz, gazteleraz, ingelesez, frantsesez, arabieraz, txineraz eta berbereraz.

Metodoa Zarauzko udal euskaltegian probatu zuten lehenengoz, 18 ikasleko bi taldetan eta Belen Benitezek dioenez, ikasleak oso gustura aritu ziren materiala ikasle tipologiara ondo egokitzen delako eta eduki kultural asko lantzen dituzenez, Euskal Herriko errealitatearekin bat egiten duelako. Horrez gain, material arina eta erakargarria sortzeko ahalegina egin dutela esaten du, ezinbestekoa delako ikasleak motibatzea.

Material didaktikoaren nondik norakoak azalduta, murgil gaitezen egindako inkesten emaitzetan eta ikasle zein irakasleen iritzi eta balorazioetan. Lehenengo eta behin, argi utzi beharreko kontua hau da; ebaluatu dugun materiala Aisa harrera ikastaroetarako prestatutako proiektu didaktiko osoaren lehenengo ikaslearen liburua eta irudi bidezko hiztegia direla. Horiek baitira, Aisa ikastaroa sortzen denean erabiltzen diren, edo erabili behar diren lehenengo liburuak.

Ikaslearen lehenengo alea, bost ikastunitatez osatuta dago; eta unitate bakoitzean hiruzpalau ataza aurki daitezke. Ataza horiek prozedura didaktikoa dute eta gure bizitzako eguneroko jarduerak dira lantzen diren gaiak. Ikastunitate bakoitzak hiru atal garrantzitsu ditu: atazak, edukien laburpena eta material osagarriak. Edukien laburpena atalaren barruan, ikastunitateei errepaso azkarra egiten zaie eta material osagarria atalean, landutako gaien sakontzeko ariketak daude. Ikastunitate bakoitzaren hasieran, ikastunitatearen ibilbidea azaltzen da orri batean, bertan edukiak zeintzuk diren eta zein trebetasun lantzeko sortuta dauden ikus daiteke. Bukatzeko, ikastunitate bakoitza

amaitzean, nire oharrak izeneko atala dago, ikasleek tarte bat dute bertan beraien oharrak idazteko.

Irudi bidezko hiztegiari dagokionez, lehenego orrian aurkibidea dago, ez da alfabetikoki ordenatutako hiztegia, gaika ordenatutakoa baizik. Hala ere, atzeko aldean, hiztegian azaltzen diren hitzak aurki ditzakegu lehenago aipatutako hizkuntza guztietan eta hauek bai, alfabetikoki ordenatuta daude.

Material didaktikoa ebaluatzeko sortutako inkesta hurrengo hau da eta aurrez aurre zein emailez egin zaie EAEko hainbat euskaltegitako ikasle zein irakasleei. Aipatu behar da, nahi baino ikasle kopuru txikiagoari egin zaiola inkesta, izan ere, proiektua martxan jarri orduko hainbat euskaltegitan bukatuta zeuden Aisa ikastaroak. Bestalde, hainbat irakaslek hartu du parte eta emaitzak nahiko esanguratsuak izan dira, aurrerago ikusiko ditugu.

Aisa harrera ikastaroetako ikasleei egindako inkesta: Ikasleen inkesta gaztelera eginda dago ikasleen euskara maila dela eta. Jarraian ikus daitekeen moduan, inkesta bost ataletan banatuta dago: hasteko, identifikazio datuak. Galdeketa anonimoa izan da eta jakin nahi izan ditugun datuak ikasturtea eta ordutegia izan dira, denbora-espazioan kokatzeko, behinik behin. Bigarren atalean, galdera orokorra liburuaren erabilgarritasunaren inguruan, sentipen orokorra jasotze aldera. Hirugarren atalean, diseinu grafikoari buruzko galderak, ikasleak motibatuta egon behar du euskara ikasteko eta motibazioan eragiten duen faktore garrantzitsua da eskoletan erabiliko den liburuaren erakargarrtasuna eta arintasuna. Laugarren atalean, edukien gaineko iritzia jasotzeko galderak, eta, bukatzeko, bostgarren atalean iradokizunetarako gunea utzi dugu, norberak ikusi dituen behar edota iritziak adierazteko tokia izan dezan.

HERRAMIENTA DE EVALUACIÓN DE MATERIAL DIDÁCTICO IMPRESO

1 Muy mala Nada **2 Malo Poco** **3 Normal Suficiente** **4 Buena Bien** **5 Muy buena Excelente**

1- DATOS DE IDENTIFICACIÓN:

CURSO:

HORARIO:

2- FORMATO DEL LIBRO: Manejabilidad.

Muy buena Buena Regular Mala Muy mala

3- DISEÑO GRÁFICO:

3.1.	Hay muchos espacios en blanco	1	2	3	4	5
3.2.	El tipo de letra no es obstáculo para entender el contenido	1	2	3	4	5
3.3.	El tamaño de letra es adecuado	1	2	3	4	5
3.4.	Tiene suficientes ilustraciones	1	2	3	4	5
3.5.	El espacio está bien repartido: ilustraciones, texto...	1	2	3	4	5
3.6.	Hay suficiente información sobre los ejercicios a realizar	1	2	3	4	5
3.7.	La estética del libro es motivadora	1	2	3	4	5

4- ANÁLISIS DE CONTENIDO:

4.1.	Los objetivos son adecuados para nuestro nivel	1	2	3	4	5
4.2.	Las unidades temáticas son acertadas para nuestros objetivos	1	2	3	4	5
4.3.	Hay suficientes explicaciones para entender la teoría	1	2	3	4	5
4.4.	La introducción ayuda a entender el ejercicio	1	2	3	4	5
4.5.	Hay suficientes ejemplos que acompañan a las explicaciones	1	2	3	4	5
4.6.	Comprendo sin problemas el léxico del texto	1	2	3	4	5
4.7.	Los ejercicios son completos	1	2	3	4	5

4.8. Hay suficientes actividades por cada tema 1 2 3 4 5

5- SUGERENCIAS, COMENTARIOS, APORTACIONES...

Irakasleei egindako inkesta dela eta, euskarazko eredia erabili da eta ikasleen eredian erabilitako atalez gain (identifikazio datuak, liburuaren formatua, diseinu grafikoa, edukiaren analisia eta iradokizun, ohar eta ekarpenak) seigarren atala gehitu zaio inkestari, erabilgarritasunarena. Atal honen bidez, ebaluatu nahi izan da irakaslearentzat zenbaterainoko den erabilgarri material didaktikoa klasean eskolaratzerako orduan, nahikoa ariketa dituen, nahikoa lantzen diren trebetasunak etab. Hona hemen eredia:

AISA IKASTAROETARAKO MATERIAL DIDAKTIKOAREN EBALUAZIOA

1 Oso txarra Ezer ez	2 Txarra Gutxi	3 Arrunta Nahikoa	4 Ona Ondo	5 Oso ona Bikaina
---------------------------------	---------------------------	------------------------------	-----------------------	------------------------------

1- IDENTIFIKAZIO DATUAK:

EUSKALTEGIA:

IKASTAROAREN IRAUPENA:

ORDUTEGIA:

IKASLE KOPURUA:

2- LIBURUAREN FORMATUA:

Oso ona Ona nahikoa eskasa txarra

3- DISEINU GRAFIKOA:

3.1.	Zuriune asko ditu	1	2	3	4	5
3.2.	Letra mota ez da edukia ulertzeko traba	1	2	3	4	5
3.3.	Letra tamaina egokia da	1	2	3	4	5
3.4.	Nahikoa ilustrazio ditu	1	2	3	4	5
3.5.	Espazioa ondo banatuta dago: ilustrazioak, testua...	1	2	3	4	5
3.6.	Nahikoa azalpen dago ariketak nola egin adierazten dutenak	1	2	3	4	5
3.7.	Liburuaren estetika motibagarria da	1	2	3	4	5

4- EDUKIAREN ANALISIA:

4.1.	Edukiak egokiak dira Aisa ikastaroa gauzatzeko	1	2	3	4	5
4.2.	Unitate didaktikoak egokiak dira Aisa ikastaroko helburuak gauzatzeko	1	2	3	4	5
4.3.	Teoria ulertzeko nahikoa azalpen dago	1	2	3	4	5
4.4.	Sarrerak egoerara egokitzen eta ariketa ulertzen laguntzen du	1	2	3	4	5
4.5.	Azalpenei laguntzen dioten adibideak nahikoak dira	1	2	3	4	5
4.6.	Ariketak egokiak dira, nahiko daude azalpen bakoitzeko	1	2	3	4	5
4.7.	Gai bakoitzeko nahikoa ariketa dago	1	2	3	4	5

5- ERABILGARRITASUNA:

5.1.	Liburua erraza da eskolaratzen	1	2	3	4	5
5.2.	Lau trebetasun komunikatiboak lantzen dira liburuaren bidez	1	2	3	4	5
5.3.	Idazmena nahikoa lantzen da	1	2	3	4	5
5.4.	Entzumena nahikoa lantzen da	1	2	3	4	5
5.5.	Irakurmena nahikoa lantzen da	1	2	3	4	5
5.6.	Mintzamina nahikoa lantzen da	1	2	3	4	5
5.7.	Ikastunitateen ibilbidea egokia da helburuak lortzeko	1	2	3	4	5
5.8.	Liburuak eskaintzen duen materiala nahikoa da ikastaroa gauzatzeko	1	2	3	4	5
5.9.	Gustura aritu izan naiz material honekin	1	2	3	4	5
5.10.	Liburuari laguntzen dioten bideoak egokiak dira	1	2	3	4	5


6- IRADOKIZUNAK, OHARRAK, EKARPENAK...

--

6.2. INKESTEN EMAITZAK ETA ONDORIOAK

Hasteko, Aisa harrera ikastaroa bideratzen, aurten edota beste ikasturte batzuetan egondako irakasleen inkestaren emaitzak aztertuko ditugu. Guztira 16 irakasleri egin zaie inkesta, aurrez aurre edo emailez. 16 irakasle hauek Aek (Lea Artibai, Durango, Elorrio, Goierri eta Andoain), Ika (Gasteiz-Adur) eta udal euskaltegietako (Gernikako Villasante, Zornotzako Ametx eta Durango) irakasleak dira. Emaitzak atalez atal sailkatu dira eta *item* bakoitzean jasotako emaitzak taula batean islatzeaz gain, emaitza esanguratsuenak grafiko bidez adierazi ditugu. Hasteko, grafikoak eta bukaeran emaitzak guztiak biltzen dituen taula.

LIBURUAREN FORMATUA




Inkestatutako irakasleen artean, gehiengoak uste dut liburuaren formatua nahikoa dela, eskasa eta ona dela uste dutenak parean daude. Baten iritziz txarra da liburuaren formatua eta inork ez du uste oso ona denik.

Hurrengo grafikoan, diseinu grafikoaren atalean kokatzen den 3.6. itemari emandako erantzunak azaltzen dira. Liburuaren estetika motibagarria da? Galderari gehiengoak, 10 irakaslek, txarra dela erantzun du.


LIBURUAREN ESTETIKA MOTIBAGARRIA DA

diseinu grafikoa




Material didaktikoaren edukiaren analisisian sartuta, hauexek dira jasotako emaitzak. 16 irakasletik 9k ikastaroa gauzatzeko lantzen diren edukiak arruntak direla diote, 5 dira edukiak txartzat dituztenak eta 2k diote onak direla. 4.2. itemari dagokionez, emaitzak berdinak dira.

EDUKIAK EGOKIAK DIRA AISA IKASTAROA GAUZATZEKO




TEORIA ULERTZEKO AZALPEN NAHIKOA DAGO




Gehiengoaren iritziz, 10 irakasle, gutxi dira teoria ulertzeko ematen diren azalpenak, 6 irakaslek, aldiz, uste dute nahikoa direla. Hurrengo grafikoan ikus daiteke 4.6. itemari dagozkion erantzunak. 16 irakasletik 14 dira azalpen bakoitzeko ariketa gutxi daudela pentsatzen dutenak, nahiko direla esan dutenak 2 dira.

ARIKETAK EGOKIAK DIRA, NAHIKO DAUDE AZALPEN BAKOITZEKO




Erabilgarritasunaren atalean sartuta, 5.1. itemean galdetu dugu ea liburua erraza den eskolaratzen eta hauek dira jaso ditugun datuak: 11 irakaslek uste du nahikoa dela, 2k ondo dagoela eta 3k gutxi.

LIBURUA ERRAZA DA ESKOLARATZEN



Irakasleei egindako inkestaren emaitzekin egindako grafikoekin amaitzeko, 5.9 galderan jasotako erantzunak ditugu, irakaslea materialarekin gustura aritu den galdetzen duena.

GUSTURA ARITU IZAN NAIZ MATERIAL HONEKIN



Itena	oso txarra ezer ez	Txarra gutxi	Arrunta nahikoa	Ona ondo	Oso ona bikaina
Liburuaren formatua	1	4	7	4	0
Zuriune asko ditu	7	4	5	0	0
Letra mota ez da edukia ulertzeko traba	0	0	15	1	0
Letra tamaina egokia da	0	0	15	1	0
Nahikoa ilustrazio ditu	0	2	10	4	0
Espazio ondo banatuta dago	0	0	15	1	0
Nahikoa azalpen dago	1	11	4	0	0
Estetika motibagarria da	1	10	4	1	0
Edukiak egokiak dira	0	5	9	2	0
Unitate didaktikoak egokiak dira	0	5	10	1	0
Teoria ulertzeko nahikoa azalpen dago	0	10	6	0	0
Sarrerak ulermenean laguntzen du	0	2	12	2	0
Adibideak nahikoak dira	0	7	7	2	0
Ariketak egokiak eta nahikoak	0	14	2	0	0
Gai bakoitzeko ariketa nahikoa	0	14	2	0	0
Liburua erraza da eskolaratzen	0	2	11	3	0
4 trebetasunak lantzen dira	0	12	4	0	0
Idazmena nahikoa lantzen da	1	10	5	0	0
Entzumena nahikoa lantzen da	0	10	4	2	0
Irakurmena nahikoa lantzen da	0	12	3	1	0
Mintzamena nahikoa lantzen da	2	10	4	0	0
Ibilbidea egokiak da helburuak lortzeko	0	8	6	2	0
Materiala nahikoa da ikastaroa gauzatzeko	13	3	0	0	0
Gustura aritu naiz liburuarekin	5	11	0	0	0
Liburuari laguntzen dioten bideoak egokiak dira	7	8	1	0	0

Taulen ikus daitezkeen emaitzak kontutan hartuta, ondoriozta daiteke, inkesta erantzun duten 16 irakasleek, orokorrean, ez dutela materiala elementu positibotzat. Iritzi horietako batzuk iradokizun, ohar eta ekarpenen atalean ere islatu dituzte, honatx horietako batzuk:

“ Orokorrean ez dut uste material egokia eta motibagarria erabiltzen duenik. Beste argitaletxeen testuliburuak erabili behar izan ditut edukiak hobeto lantzeko.”

“Kontuan hartu behar da oso ordu gutxiko ikastaroa dela. Ikasle gehienentzat euskararekin duten lehen kontaktua da eta badirudi helburu komunikatiboak bertako ikasleek baino lehenago bete behar dituztela. Hau da, euskalduntze talde arrunt baten, gutxieneko nozioak dituzten ikasleekin antzeko denbora edo gehiago behar izaten da Aisa 1eko helburuak lortzeko.”

“Oso aspergarria egiten zaigu, bai irakasleoi baita ikasleei ere. Ez da nahikoa 60 orduko ikastaroa emateko. Laburbilduz, ez da material egokia.”

“Liburuetan ez da azalpen gramatikalik agertzen. Horrez gain, hemengo kulturarekin duten harremanen arabera (noiz etorri diren, harremanik duten,..), oso gutxi da lantzen dena helburua gure kulturara hurbiltzea bada. Hiztegian, arabieraz eta txinoz daude izenak idatzita. Ondo dago baina ez dakit oso erabilgarria den, gure ikastaroa egiteko gure grafian egin behar dutelako eta hori bakarrik hiztegian agertzen delako. Nik ez dut ia liburua erabili, asko jota, klasean egindakoa pixkat indartzeko, etxerako lan gisa.”

“Egia esateko, hiztegia baino ez dut erabili. Beste liburua ez zait batere gustatu eta ez dut erabili ere egin. Nahiago izan dut ARIAN A1 edo euskaltegiko bestelako materiala erabili, jolasak... Formatoa ez zait gustatzen: ez du motibatzen, ez da lehen begiratuan ulertzen eta gainera euskarri moduan VHSa du, gaur egun ia hori klaseratzerik ere ez dago. Beraz, nire ustez material hori eguneratu eta erakargarriago bihurtu beharko litzateke.”

Horiexek dira irakasleengandik jasotako emaitzak, jarraian, ikasleei egindako inkestetan jasotako emaitzak aztertuko ditugu. Hasteko, esan behar da, ikerketa lanaren atal praktikoa burutzen hasi nintzenerako Aisa ikastaro gehienak bukatuta zeudela, hori dela eta, ez dut lortu nahi beste ikasle inkestatzea. Durangaldeko bi talderi egin diet inkesta aurrez aurreko taldeetan eta guztira 12 ikasle izan dira galdetegia bete dutenak. Taldeetan gehiago baziren ere, asistentzia arazoak direla eta ez dute taldekide guztiek erantzuteko aukerarik izan. Hurrengo taulan jaso dira bildutako emaitza guztiak.

Itema	oso txarra ezer ez	Txarra gutxi	Arrunta nahikoa	Ona ondo	Oso ona bikaina
Liburuaren formatua	0	0	7	5	0
Zuriune asko ditu	0	0	5	7	0
Letra mota ez da edukia ulertzeko traba	0	0	11	5	0
Letra tamaina egokia da	0	0	12	0	0
Nahikoa ilustrazio ditu	0	0	10	2	0
Espazio ondo banatuta dago	0	0	11	1	0
Nahikoa azalpen dago	1	7	5	0	0
Estetika motibagarria da	3	7	2	0	0
Edukiak egokiak dira	0	6	6	0	0
Unitate didaktikoak egokiak dira	0	6	6	0	0
Teoria ulertzeko nahikoa azalpen dago	0	10	2	0	0
Sarrerak ulermenean laguntzen du	0	2	10	0	0
Adibideak nahikoak dira	0	7	5	0	0
Ariketak egokiak eta nahikoak	0	11	1	0	0
Gai bakoitzeko ariketa nahikoa	0	9	3	0	0

Irakasleen inkestetan baino emaitza hobexegoak badira ere, Aisa talde bi hauetako ikasleek hutsuneak ikusten dizkiote metodoari, izan ere, 12tik 10 dira azalpen gutxi daudela esaten dutenak eta 11 dira ariketa gutxi daudela diotenak.

Iradokizunen atalean jasotako iritzi orokorra izan da, ariketa gutxiegi dituela eta gramatika azalpenen falta izan dutela.

Bestalde, Irakasle guzti guztiek aipatu dute gutxi erabili dutela liburua eskoletan, hiztegia bai, erabili dutela eta ikasleek ere gustura hartzen dutela. Baina ikaslearen liburutik oso gauza gutxiri atera diotela probetxua eta beste argitaletxe batzuetako materialak erabili dituztela, batek baino gehiagok aipatu du Elkar argitaletxearen Arian A1.1 ikaslearen liburua, baita Ika1 ariketa liburua ere.

6.3. NORBERAREN ESPERIENTZIAN OINARRITUTAKO ONDORIOAK

Bigarren Aisa ikastaroa eman dut aurten, lehenengoa 2012-2013 ikasturtean eman nuen eta aurten, Elorrioko Abizari Aek euskaltegian bigarrena. 8 ikasleko taldea izan da eta urtarrilaren 10etik aste santuko oporrak arte aritu gara astean 6 orduz euskara irakatsi eta ikasten. Ikasleen jatorriari dagokionez: 5 senegaldar, mauritaniar 1, saharar 1, marokoar 1 eta maliar 1 izan dira. Giro ona sortu da eta gustura aritu gara, horren adierazle, asistentzia ona izan dela ikasleen artean eta bigarren Aisa ikastaroa egin dutela apiriletik ekainera. Beste irakasle bat egokitu zaie bigarren ikastaro horretarako eta berarekin ere gustura aritu dira, izan ere, taldeko bi ikasle ditugu datorren urtean euskaltegiko A1 mailako talde batean sartzeko animatuta daudenak. Bi ikasle hauek aurretik egina zuten beste Aisa ikastaro bat 2012-2013 ikasturtekoa, hain zuzen ere.

Nik izan dudan esperientziaren arabera, Aisa ikastaroek duten helburua hein batean betetzen dutela uste dut. Ikastarora hurbiltzen diren ikasleei euskal mundurako harrera egiten zaie, lehen kontaktua izaten dute euskararekin eta batzuek oinarrizko esapide eta hitz solte batzuk ikasten dituzte. Bestalde, eta hau bi taldeetan gertatu zait, taldearen erdia gutxi gora-behera, ikastaroaren lehen asteetan galdu eta ez da gai izaten aprobetxamendu egokia egiteko. Batzuetan, asistentzia izaten da arazoa eta beste batzuetan, ikasle tipologia konkretu bat, idazten eta irakurtzen ia ez dakiena eta inoiz ikasi ez duena. Izan ere, irakaslea ikastaroaren lehen egunean taldera heltzen denean konturatzen da zein talde heterogeneoak izaten diren Aisakoak, herrialde anitzetako jendea elkartzen da ikasgelan eta ikasle bakoitzak profil ezberdina du: batzuk alfabetatuak dira, beste batzuk ez; batzuek oinarrizko ikasketak dituzte, beste batzuek goi-mailakoak eta hirugarren taldekoek ez dute ikasketarik; batzuen ama-hizkuntza frantsesa da, beste batzuen ingelesa, beste batzuen wolofa... guztia kontutan hartuta irakasleak helburu batzuk finkatu behar ditu eta ez da lan erraza izaten, horregatik, gehienetan, taldeko kide batzuek egiten dute aurrera eta beste batzuk,

askotan, gustura aritzen badira ere, entzule egoten dira.

Orokorrean, Aisa ikastarorako materiala ez zait erabilgarri egin ikastaroa aurrera eramateko. Egokia iruditu zait hiztegia oso, alde batetik hizkuntza ezberdinetan dagoelako eta bestetik irudi bidezkoa delako eta horrek neurri baten, alfabetatzearekin arazoak dituzten ikasleei, laguntzen dielako. Bestalde, ikaslearen liburuaren ibilbidea ere egokia da, planteatzen diren gai eta edukiei begiratuz gero.

Kontua da, ikastunitateetan azaltzen diren edukiak eskolaratzeko azalpen eta ariketa gutxi dagoela, adibide bat jartzearen; helburuetariko bat ikasleak bere aurkezpena egitea da eta liburuan azaltzen denarekin ikasleak “buruz” ikasi behar du aurkezpen hori egiten, eredu batean oinarrituta bere datuak txertatzea da proposatzen dena. Baina ez ditu deklinabide kasuak edo oinarritzko izan eta ukan aditz laguntzaileak azaltzen eta ikasleak ez ditu edukiak behar bezala ulertzen, adibide sinple bat: ikaslea Malikoa izan edo Senegalgoa izan ez da gauza bera gramatikari dagokionez, eta zalantzak sortzen dira: zergatik da Senegalgoa eta ez Senegalekoa, adibidez.

Horrelakoetan nabaritzen da gramatika azalpenetan hutsunea eta beharrezkoa izaten da beste argitaletxe batzuetako materiala eskura izatea, prestatuago baitaude hasiera mailetako azalpenak emateko eta ariketa kopuru eta kalitate aldetik osatuagoak baitaude. Nik, inkestetan beste irakasle batzuek aipatu bezala, Arian A1 mailako ikaslearen liburua eta Ika1 ikaslearen liburua erabili ditut eta egokitu ditut ikastarora, berez, ez baitaude etorkinei zuzenduta.

Horrez gain, Aisa metodologiak proposatzen dituen bideoak zaharkituak daude, VHS formatuan daude eta horiek klaseratzea ez da eroso. Entzumena lantzeko ere aipatutako beste metodo eta liburuetara jo behar izan dut.

Mintzamenari begiratuz gero, hutsune handia nabaritu dut, proposatzen diren ekintza komunikatiboak oso urriak dira eta mintzamina landu nahi bada, irakasleak proposatu eta moldatu behar ditu ariketak. Gainera, trebetasun honek garrantzi handia duela uste dut, alfabetatze arazoa dela medio, talde osoak maila nahiko orekatu eta bateratuan landu dezakeen trebetasuna dela uste dudalako entzumenarekin batera. Bestalde, oinarritzko ikastaroa denez, berau bukatzerakoan, aukera eman diezaioke ikasleari bizi den herrian, neurri oso txikian bada ere, euskaraz bizitzen hasteko; dendetan, polikiroldegian, liburutegian edota eskolan hitz batzuk euskaraz esaten hasteko.

Bukatzeko, hizkuntzaz gain kultura ezagutzeko ikastaroa ere bada Aisa eta nire iritziz, ez du euskal kultura ezagutzeko aukera handirik ematen. Lehenengo ikastunitatean Euskal herria

geografikoki non kokatzen den azaltzen da eta pertsonaia batzuen aurkezpenak agertzen dira baina hauek ere oso zaharkituak, besteak beste: Ainhoa Arteta, Miren Azkarate, Joane Somarriba, Alaitz eta Mainer taldeko Mainer eta Gorka Knor azaltzen dira. Erabilgarria al da egun senegaldik datorren ikasle bati pertsonaia hauek nor diren azaltzea? Nik uste dut ezetz, ez baitira egungo gizartearen komunikabideetan azaltzen diren pertsonaiak. Beraz, alde horretatik ere, materiala berritzea ezinbestekoa da ikastaroa benetan baliagarria izan dadin.

¡Anímate a aprender Euskera!
Take a chance and learn Euskara!
N'hésitez plus, apprenez l'euskara!
تشجع لتعلم اللغة الباسكية !!
+X +.0N.0+ .+0%LA++ +:0R:0+!
来学习巴斯克语吧!



Aisa ikastaroan izena ematera animatzen duen kartela

7. MATERIAL DIDAKTIKOA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Aisa ikastaroaren emaitzak hobetze aldera, beharrezkoa da metodologia berria proposatzen duen materiala sortzea. Balizko material didaktiko horrek modernoagoa, osatuagoa eta praktikoagoa izan beharko luke. Horrela, liburuen erabilera bermatuko litzateke euskaltegietan, irakasle guztiek argi edukiko lukete zein ibilbide jarraitu eta bateratuagoa izango litzateke ikastaroan irakasten dena eta azkenik, ikasleek liburuan bertan izango lukete jasota ikastaroan zehar egindakoa eta ikasitakoa, hortaz, birpasatzeko erosoagoa izango litzateke.

Irakasleek egindako inkestetatik jasotako emaitzak eta nire esperientziatik ateratako ondorioak kontutan hartuta, material didaktikoak hobekuntzak behar dituela argi dago. Hiru ildo nagusitan banatzen dira behar edota hobekuntza hauek: azalpen teoriko eta ariketak, teknologia berriak txertatzea eta aspektu kulturalari dagokionez, euskal kulturari adierazgarri diren elementuen azalpena eta azaltzen diren pertsonaia eta adibideen gaurkotzea.

Proposatzen den ibilbidea egokia dela esan dugu edukiei begiratu gero, eduki horiek lantzeko orduan, berriz, oinarri oinarritzko gramatikaren azalpena txertatu beharko litzateke. Eta, azalpenak ulertu eta barneratzeko ariketa analitiko gehiago. Horiek ikaslearen liburuan bertan edo ariketa osagarriekin egindako liburuxka batean jartzea litzateke aukera onena, beste argitaletxe batzuen ereduari jarraituz.

Teknologia berriak txertatzea da egin beharreko bigarren hobekuntza, izan ere, egungo gizartean gero eta gehiago dira erabiltzen ditugu teknologia berriak eta modernizatzearen aldeko apustua egitea aberasgarria litzateke motibagarritasuna eta praktikotasunari begiratu gero. Ikus-entzunezko gaurkotuak formatu modernoetan diseinatzea eta balizko material berriak txertatzea da proposamena.

Bukatzeko, egungo gizartean eredu diren pertsonaia eta telebista saioak izan beharko lukete liburuaren oinarrietako bat, horrela, ikasleek erabilgarri ikusiko lukete ikasten dutena eta integrazioaren bidean ere interesagarria litzateke moldaketa hau, egungo gaiak jorratuko lituzketelako eta euskal munduan barneratzeko lagungarri izango liratekeelako. Horrez gain, euskal kultura ezaguarazteko, identitarioak diren elementuak landu beharko lirateke liburuan: euskal musika, herri kirolak, jaiak, ihauteriak eta sukaldaritza moduko gaiak adibidez.

Asko izan daitezke moldaketa horiek ez egitearen arrazoiak, nagusienetakoa arrazoi

ekonomikoa izan daitekeela pentsatzen dut baina eskaintzeko zerbait badugu eta lortu nahi ditugun helburuak argi baditugu, zerbait hori kalitatezkoa eta erabilgarria izan behar dela uste dut.

Ez dut zalantzan jarri nahi orain arte egindako lana, bistakoa baita emaitza positiboak eman dituela eta ematen ari dela, izan ere, datuek dioten moduan, gero eta etorkin gehiagok ematen dute izena Aisa ikastaroetan eta hurrengo urteetarako joera berdina izango da, gure herrietan gero eta etorri berri dagoelako. Horrexegatik iruditzen zait hain garrantzitsua berrikuntza horiek txertatzea, datozen urteetan izango ditugun ikasle berriek ahalik eta aprobetxamendu handiena lortu eta euskararen mundura hurbil daitezen. Bada, jarrai dezagun lanean, hamaika koloretako Euskal Herri euskalduna lortze bidean.

8. BIBLIOGRAFIA

- AIERDI, X., ¿Nuevos ciudadanos vascos?, Hermes, 19. alea, 2006.
- AIERDI, X., Acercar angustias, el impacto de la nueva diversidad lingüística en el proceso de normalización de lenguas minorizadas, Nuevos desafíos para las sociedades plurales, 2008.
- AIERDI, X., Etnicidad inevitable, convivencia posible, Inmigración: nuestros miedos e inseguridades, 2004.
- AIERDI, X., Hamarkada isil bateko migrazioak, Jakin, 159. alea, 2007.
- AIERDI, X., Hego Euskal Herriko atzerri migrazioa, Jakin, 165. alea, 2008.
- AREXOLALEIBA, J., Europan eta munduan aniztasuna: etorkizuna=etorkizuna?, BAT aldizkaria, 52zbk, Euskal herria, 2004.
- ARRAYET, E., MTZ. LIZARDUIKOA, E., Giza migrazioak lehen eta orain, oinarrizko liburutegia, Gaiak, Donostia, 2007.
- Atlas de las migraciones, las rutas de la humanidad, 2010, Akal, Valentzia.
- BAGLIETTO, A., GARMENDIA, I., SUBERBIOLA, P., URDANGARIN, M., Etorkinak eta euskara: hausnarketarako oharra, BAT aldizkaria, 47zbk, Euskal herria, 2003.
- BARQUÍN, A., El futuro modelo lingüístico único y la escolarización de los alumnos de origen inmigrante. Mugak aldizkaria, 39.alea, Centro de estudios y Documentación sobre racismo y xenofobia, SOS racismo/SOS arrazakeria, Donostia.
- BAXOK, E., COYOS, J.B., Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian, Jagon saila, Euskaltzaindia, Bilbo, 2010.
- FISHMAN JOSHUA, A. (2001). Can Threatened languages Be Saved? Reversing Language Shift Revisited: A 21st Century Perspective. Clevedon: Multilingual Matters.
- Habe aldizkaria, 2003ko abuztua, 339.alea, Aisa, etorkinak euskalduntzeko materiala, Eusko Jaurlaritza.
- Habe aldizkaria, 2004ko martxoa, 346. alea, Aisa harrera-ikastaroak: Etorkinak euskara ikasten, Eusko Jaurlaritza.
- Habe aldizkaria, 2006ko martxoa, 367. alea, Aisa harrera-ikastaroak, euskara etorkinena, Eusko Jaurlaritza
- Ikasle etorkinentzako hezkuntza-arretarako programa, eskola-eredu inklusibo eta kulturartekoaren barruan 2012-2015. Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzu nagusia, Vitoria-Gasteiz 2012.
- IRAOLA, A., Hizkuntzaren habeari atxikia, Berria, 2015eko ekainaren 21a.
- LOZANO, J., Modelos lingüísticos. El consejero no tiene quien le escriba. Javier Lozano, Mugak aldizkaria, 39.alea, Centro de estudios y Documentación sobre racismo y xenofobia, SOS racismo/SOS arrazakeria, Donostia.
- MAIA, J., Riomundo, Txalaparta, 6. argitalpena, Tafalla, 2005.
- MARTÍNEZ DE LUNA, I., Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak, HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia, EHU, 2015.
- MURUA, I., (koordinatzailea), Helduen euskalduntzearen azterketa (2007-2008/ 2012-2013), Hizpide aldizkaria, 83.zbk, Haberen Hizkuntza Didaktika Zerbitzua, Donostia, 2014.
- ONANDIA, M., Ongi etorri Durangaldera, Anboto Durangaldeko astekaria, 595. alea, 2015eko ekainaren 26a.
- PRENDES, M.P., SOLANO, I., Herramienta de evaluación de material didáctico impreso, Grupo de Investigación de Tecnología Educativa, Universidad de Murcia.
- UEMA berripapera, udalherri euskaldunen mankomunitatea, 41. alea, apirila, 2015.

- URKIDI, P., ASENJO, I., Euskal Herriko biztanlearen bilakaera 1900-2001 eta bere egituraren emandako aldaketarik nabarmenenak, Lurralde aldizkaria, 31.alea., 233-276. or, INGEBA (Euskal Geografi elkargoa) 2008.
- V. mapa soziolinguistikoa 2011, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza eta Kultura saila, Vitoria-Gasteiz, 2011.
- ZALBIDE, M. (2015) 1.3. Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Webguneak:

- Migrazio mugimenduen nondik norakoaren azalpena.
http://ficus.pntic.mec.es/ibus0001/poblacion/Movimientos_migratorios.html
- Osa, E. (2015). Berritzen den ura, immigrazioaz. Deia.com
<http://www.deia.com/2015/04/14/opinion/columnistas/talaieroa/berritzen-den-ura>
- INE (Estatistiken Estatu Institutua)
<http://www.ine.es/prensa/np854.pdf>
- EUSTAT (Etorraren datuak EAEn)
http://eu.eustat.es/elementos/ele0000200/ti_euskal-aeko-migrazioak-lurralde-arlo-eta-migrazio-motaren-arabera/tb10000255_e.html#axzz3YWS1mLeL
- ACNUR (Mundu mailako immigrazio datuak)
<http://acnur.es/materiales-publicaciones/estadisticas>
- Bolio Ortíz, H. (2015). Pobrezia eta immigrazioa datuak
<http://biblio.juridicas.unam.mx/revista/HechosyDerechos/cont/16/art6.htm>
- Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokia.
<http://ikuspegi-inmigracion.net/es/>
- Soziolinguistika klusterra
<http://www.soziolinguistika.eus/es>

Telebista:

- Nago ijito euskaldunekin, eitb, (2014)

<http://www.eitb.tv/eu/bideoa/nago/3094523176001/3441776925001/nago-ijito-euskaldunekin/>

- Tribuen berbak, eitb, (2014), Jone Miren Hernandez, EHUko soziologia irakaslearen ekarpenak

<http://www.eitb.tv/eu/bideoa/tribuaren-berbak-3-denboraldia/4102393061001/4133263983001/60etako-emigrazioa-gaur/>

- Tribuaren berbak, eitb (2014) Badator korrika! XX mendeko immigrazioaren aipamenak

<http://www.eitb.tv/eu/bideoa/korrika-3-denboraldia/4104751620001/4119266519001/badator-korrika-/>

- Tribuaren berbak, eitb (2014) Mundu gerrak eta euskara.

<http://www.eitb.tv/eu/bideoa/tribuaren-berbak-2-denboraldia/4104751617001/4088429472001/mundu-gerrak-eta-euskara/>

- Maia, J., Emigraziotik bertsolaritzara, Gipuzkoako Aniztasunaldia, (2013)

<https://www.youtube.com/watch?v=MiuZ5UojFM>

- 1 Munduko bankua: datos.bancomundial.org
- 2 Datuak: [Acnur](#)
- 3 Aditu talde baten ikerketa, (2010). Atlas de las migraciones, le monde. Akal. Valentzia, 11.or.
- 4 Zalvide, M. (2015) 1.3. Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea, 2015.
- 5 Informazioan sakontzeko: www.euskaletxeak.net
- 6 Gaian gehiago sakontzeko: Iraola, I., Zabalo, J. Del sur a Euskal Herria. Inmigración de los 60 y 70, EHU.
- 7 Aierdi, X., Euskal herrirako inmigrazio espainiarraz, euskonews media, 101zkb., 2000.
- 8 *Riomundo* nobelatik hartutako pasartea, (Maia, 2005: 127). Gaian gehiago sakondu nahi izanez gero, eskura dago Maiak Emigraziotik bertsolaritzara, Donostiako Aniztasunaldian 2014an emandako hitzaldia: [Aniztasunaldia 2014 Maia](#)
- 9 Sanguines, G., 6.2.TELP: Taller d'espai linguistic personal. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko espezialista. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea, 2015.
- 9 (Intxausti, 1992:134)
- 10 Barreña, A., Juaristi, P., Hizkuntza gutxituak nazioarte mailan, HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- 11 Soziolinguistika klusterrak dituen datuen arabera, ikasle etorkinen % 65 A ereduan matrikulatzen da gaur egun.
- 12 Barreña, A., Juaristi, P., Hizkuntza gutxituak nazioarte mailan, HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- 13 Arexolaleiba, J., Europan eta munduan aniztasuna: etorkizuna= etorkintasuna?, BAT aldizkaria, 52. zbk., Euskal Herria, 2004.
- 14 Datuak: Soziolinguistika klusterra.
- 15 Uema berripapera, 41zkb., 2015
- 16 Ikasle etorkinentzako hezkuntza-arretarako programa, eskola-eredu inklusibo eta kulturartekoaren barruan, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gastiz 2012.
- 17 Arexolaleiba, J., Europan eta munduan aniztasuna: etorkizuna= etorkintasuna?, BAT aldizkaria, 52.zbk., Euskal Herria, 2004.
- 18 Immigrazioari buruzko Euskal plana, dokumentua osorik irakurtzeko: [Immigrazioa euskal plana](#)
- 19 Amorrortu, E., Erdaldunen euskararekiko jarrerak, Hiznet ikastaroa, EHU, 2015.
- 20 Muñoz, A., La concentración de inmigrantes en la escuela pública se acentúa en Euskadi, El Pais, 2015.[immigrazioa eta eskola publikoa](#)
- 21 Informazioan gehiago sakontzeko: Ikasle etorkinentzako hezkuntza-arretarako programa, eskola-eredu inklusibo eta kulturartekoaren barruan 2012-2015, Eusko Jaurlaritz, Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Vitoria-Gasteiz, 2012. [Ikasle etorkinentzako hezkuntza-arretarako programa](#)
- 22 MOSTEIRO, J.I., Euskara Sustatzeko Ekintza Plana, Euskararen Hizkuntza Batzordea, Kultura Saila, 2012.
- 23 ZALBIDE, M., Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko, Hiznet, EHU, 2105.
- 24 [Santurtzi.eus](#), bertan hainbat azalpen eta ariketa daude. [Ikasbil.net](#), lau trebetasunak lantzeko ariketa eta atazak, mailaka ordenatuta, webgunean alta emanez gero, Aisa ikastaroa online jarraitzeko aukera baita Boga ikastaroa ere. [Karrajua.org](#), webgune honetan, euskara eta euskaltegien munduaren gaineko hainbat informazio, artikulak etab., [Hiztegia](#), hainbat hiztegi eta entziklopedia. Horiez gain, duela gutxi, maiatzaren 28an, *ber2tek* aurkeztu zuten, euskara tutore birtual berria, Igor Leturia Azkarate eta bere ikerketa taldeak. Euskara ikasteko tutore pertsonala, unex uneko itzulpenak, testu eta entzungaien transkripzioak... aurki daitezke aplikazioan. [ber2tek](#)
- 25 Bi metodo dira erabilienak eta gaurkotuenak: Bakarka euskara zure kaxa ikasteko metodoa eta Arian euskara ikasteko metodoa, biak elkar argialetxearenak. Horiez gain, euskaltegi batzuek argitaratuta dituzte beraien materialak baina gehienak ariketa analitikodun liburuak dira: Ika euskaltegiak Ika ikaslearen liburuak adibidez, 12 urratsetan banatuta eta Aek ikaslearen liburuak A1, A2, B1, B2 eta C1 mailatan banatuta.
- 26 Helduen euskalduntzea eta etorkinak lanetik hartutako datuak.
- 27 Aisa, etorkinak euskalduntzeko materiala, ikasbil.